



elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

## ELIKAGAIKIN HARREMANA DUTEN LANGILEAK

### Sarrera

**Definizioa:** *“Lana dela eta, elikagaiekin harreman zuzena duten pertsonak dira, eta honako prozesu hauetan hartzen dute parte: elikagaiak prestatu, fabrikatu, eraldatu, ekoitzi, ontziratu, biltegiratu, garraiatu, banatu, saldu, hornitu eta zerbitzua ematea”.*

Elikagaiekin harremana duten langileak, beraz, kontsumitzaileen osasuna babesteko ardura du. Eta ardura hori exijitu ahal izateko, janari-erabiltzaileek gutxieneko prestakuntza jaso behar dute higieneari eta elikagaien segurtasunari buruz. Prestakuntza horrek lotura izango du egin beharko duten lanarekin, eta enpresak bermatu egin beharko du.

Elikagaiekin harremana duten langileak orok gehieneko higiene-bermeak izango dituzte beti lanean.

1

### Arrisku altua duten langileak

*“Arrisku altua” duten elikagai erabiltzaileak dira elikagaiak manipulatzeari elikagaien segurtasuneari eta txukuntasuneari eragina izan ahal duten janari-erabiltzaileak.*

Arrisku altuko janari-erabiltzaileak dira honako ekintza hauetan parte hartzen dutenak:

- a) Janari prestatuak egin eta manipulatu egiten dituztenak; ondoren, zuzen-zuzenean kontsumitzaileari edo taldeei saldu, hornitu eta zerbitzua emateko.

- b) Epidemiologia-datu, zientzia-datu edo datu teknikoetan oinarrituta, osasun arloko erakunde eskudunek arrisku altuko janari-erabiltzailetzat sailkatu dituztenak.

Europako araudiak zehazten duen bezala, janari-erabiltzaileak etengabeko prestakuntza jaso behar du honako arlo hauetan: erakundeetan erabiltzen diren tekniketara eta elikagaien segurtasuna kolokan jarri ahal duten arriskuak (sor litezkeen arriskuak).